

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN 2010-EKO KONTU OROKORRAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontu Orokorraren, bere Erakunde Autonomoaren eta Sozietate Publikoen fiskalizazio txostena mamitu du, 2010eko ekitaldiari dagokiona. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Legezotasunaren atalean, HKEEk Foru Aldundiaren jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du, txostenean bertan jaso diren hainbat ez-betetze salbuetsita.

Honela, bada, sarrera fiskalei dagokienez, HKEEk Diru-bilketarako Erregelamenduak zerga zorrak geroratzeko eskabideak ebazteko ezarritako gehiengo epea ez dela bete jakinarazi du; zerga zor horiek 22 milioi euro ingurukoak izan dira eta horrek ordainketa planik ez dela zehaztu eta dagozkion bermeak ere ez direla eskatu adierazten du.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan hona hemen, besteak beste, azaleratu diren salbuespen nagusienak: publiziterik gabeko prozedura negoziatu bitartez hainbat zerbitzu kontratu gauzatu izana, prozedura hori baliatzeko arrazoiak justifikatu gabe; kontratuak zatikatzea esleipen prozedurari buruzko betekizunak saihestuz, 14 kasutan; zerbitzu bat ematean, behin luzapenak agortuak zirela eskagarria den kontratazio prozedura izapidetu gabe gastua gauzatu izana; bi obra kontratu gauzatzean % 23,6 eta % 10,3ko aldaketak egin izana, jada kontratu horiek aurreko ekitaldietan aldaketa esanguratsuak izan zituztela; horrek lehia printzipioak urratzea dakar, kontratuen bolumen ekonomikoa desitxuratzen baita.

Diru-laguntzei dagokienez, HKEEk azpimarratu du Diputatuen Kontseiluak 7,2 milioi euroren diru-laguntza zuzenak eman dizkiela toki erakunde, enpresa eta irabazi asmorik gabeko erakundeei, dagokion publizitate eta lehia sustatzeko ezintasuna batere justifikatu gabe.

Kontu Orokorrari dagokionez, HKEEK aldeko iritzia eman du, salbuespen izanik garrantzi txikiko hainbat kontularitzako doiketa (Diruzaintza Geldikina 12,8 milioi euroan gehitu dutenak) eta ibilgetuko hainbat kontu ez xehatu izana. Azpimarratzekoa da Europako Batzordeak Europar Batasuneko Auzitegiari aurkeztutako auzi eskeari dagokionez sortutako zalantza egoera, 7/1997 eta 7/1996 Foru Arauetan ezarritako kenkariak eta zerga hobariak berreskuratzeko beharrezko neurriak ez hartu izanari buruzkoa.

Txostenak, gainera, Erakunde Autonomoa eta lau Foru Sozietate Publikoak fiskalizatzen ditu; HKEEren iritzia aldekoa da eta txostenean jaso diren salbuespen zehatz batzuk azpimarratzen ditu; besteak beste, aipatzekoa da Bidegi, SAren 1,8 milioi euroren bi kontraturen lizitazioan publizitate eza eta sozietate berean kontratuaren % 30 egiten duen aldaketa bat bideratu izana, lehia printzipioak urratzen dituen.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalei, kontratazioari, diru-laguntzen emakidari eta langileen kudeaketari dagozkionak.

Finantza Analisiaren atalean azpimarratu da 2010eko aurrekontuaren egikaritzea hobetu egin dela aurreko ekitaldiarekiko, izan ere gehitu egin dira zerga sarrerak, gastu arruntari eutsi egin zaio edo igoera neurritzkoa izan du (gastu soziala salbuespen) eta inbertsioak urritu egin dira; berebat, 2009ko ekitaldi itxieran baliatutako zorpetzearen berri ere ematen da eta 374,3 milioi eurorena izan da Aldundiarentzat eta 678,4 milioi eurorena, berriz, Bidegi, SArentzat.